

GIZARTE EGITURA ETA **BAKARDADEAK**

**EUSKADIKO 55 URTEKO ETA
GEHIAGOKO PERTSONEN
BIZI BALDINTZEI BURUZKO
AZTERLANA 2020**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN . JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

GIZARTE EGITURA ETA **BAKARDADEAK**

EUSKADIKO **55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI BALDINTZEI** BURUZKO AZTERLANA 2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2022

Argitaraldia:

1.a, 2022ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Matia Institutuak egina:

Sara Marsillas eta M^a Ángeles Molina. Elena del Barrio (Kordinazioa)

Landa lana:

Demométrica

Diseinua eta Maketazioa :

Komunikazio Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Edukia

Aurkezpena	7
Helburuak	9
Txosten Honen Helburuak	10
Metodologia	11
Profil Soziodemografikoa	12
Azterlan honetan erabilitako aldagaiak	13
Emaitzak	17
Gizarte egitura	17
Bizikidetza motak	17
Gizarte sarearekiko harremanen maiztasuna	21
Seme edo alaba hurbilenarekiko distantzia	32
Komunitate sentimendua	34
Bakardadeak	36
Etxeko bakardadea: bakarrik bizi	36
Bakardade objektiboa: harreman eskasa gizarte sarearekin	38
Bakardade subjektiboa: bakardadearen esperientzia subjektiboa	41
Aldibereko bakardadeak	45
Funtsezko mezuak	47

AURKEZPENA

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta espezifiko bat egiteak aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari lurralde honetako adinekoen bizimoduari buruzko aurreko azterlanei jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietako lehena 1993an egin zen (Adinekoen Inkesta), 1994ko Gerontologia Plana egiteko. Bigarren azterlana 2010ean egin zen (EAEko adinekoei buruzko bizi baldintzei buruzko inkesta), eta dokumentu honen oinarri gisa erabili zen: «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak», 2011koa. Horrelako azken azterketa 2014an egin zen, eta «Zahartze aktiboaren euskal estrategia 2015-2020» argitaratu zenean amaitu zen.

2020an egindako azterlana inkestaren hirugarren edizioa da, eta pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizuneko joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetzen du. Ezagutza hori lagungarria da Euskadin zahartze prozesuaren inguruko iraganeko politika publikoak ebaluatzeko eta etorkizunekoak diseinatzeko.

Azterlan honen emaitza gaikako txosten sorta bat da, zeinean zehatz-mehatz aztertzen baitira Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera, hainbat arlotan (gizarte egitura, osasuna, zaintzak, parte hartzea eta abar). Serieko zenbaki honetan, **Gizarte egitura eta bakardadeak** izan dira aztergai.

Helburuak

Bizi baldintzen azterketaren (BBA+55 2020) helburua da gizarte politiken planifikatzaileei eta arduradunei informazio zehatza eta puntuala ematea Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen familia bizitzaren, banakako bizitzaren eta bizi diren ingurunearen baldintzei buruz. Inkestaren bidez, halaber, lurraldeko adinekoen errealitatea sistematizatu eta zabaldu nahi da, biztanleria talde horri dagozkion hainbat alderdiri helduz.

Hauek dira BBA+55en helburu espezifikoak Euskadin:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren parte diren alderdi ugariren argazki eguneratu bat eskaintzea (baldintza materialak, osasun egoera, heziketa maila, astialdia, parte hartzea, gizarte harremanak, ingurunea eta abar).
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio azterketa bat egitea.
- Euskadiko lurraldeen artean eta hiriburuen artean gai horien inguruan dauden aldeak ezagutzea.
- Biztanle talde horren premiak identifikatzea.

Hasieran planifikatutako helburu horiei 2020an gertatutako krisi egoeraren ondorioz honako hau gehitu zitzaien:

- COVID-19aren krisiak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan izan duen inpaktua ezagutzea.

TXOSTEN HONEN HELBURUAK

Txosten honen helburu zehatza Euskadin bizi diren 55 urteko eta gehiagoko pertsonen gizarte egitura eta bakardadeak aztertzea da.

Azterlanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Zahartzen ari diren Euskadiko herritarren gizarte egiturari eta bakardadeei buruzko argazki eguneratua egitea (bizikidetzak, beste pertsona batzuekiko harreman presentzialak eta ez-presentzialak, hurbiltasuna, etxeko bakardadea, bakardade objektiboa eta bakardade subjektiboa).
- Identifikatzea aztertutako aldagai bakoitzeko adinekoen profilak.
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio azterketa bat egitea.

Metodologia

Hau da txostenaren oinarria: Euskadin familia etxebizitzetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko bi generoetako biztanleei egindako inkesta baten azterketa kuantitatiboa.

Laginketa ausazkoa izan zen, eremu geografikoaren, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatua. Euskadiko hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan emaitza adierazgarriak lortzeko, azken lagina 2.753 elkarrizketakoa izan zen, eta honela banatu ziren:

3. taula. Laginaren azken banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera, hiriburuetan gutxienez 400 elkarrizketa eslelituta

GERUZA	ARABA	BIZKAIA	GUIPUZKOA	GUZTIRA
5.000 baino gutxiago	47	124	66	237
5.001 eta 20.000 bitarte	35	267	300	602
20.001 eta 50.000 bitarte	0	306	142	448
50.000 baino gehiago	0	199	67	266
Hiriburuak	400	400	400	1200
Guztira	482	1296	975	2753

Informazioa biltzeko teknika telefono bidezko elkarrizketa izan zen, CATI sistema informatikoaren bidez egituratutako galdetegi batean oinarrituta. Landa lana 2020ko uztailan, abuztuan eta irailean egin zen.

Beste urte batzuekin alderatzeko azterketa egiteko, honako inkesta hauetako datuak erabili dira:

URTEA	AZTERLANA	LAGINA
1993	Euskadiko Adinekoen Inkesta	Bizileku partikularretan bizi ziren 65 urteko eta gehiagoko 1.484 pertsona eta Euskal Autonomia Erkidegoan ospitateratuta zeuden 102 pertsona
2010	Euskadiko 60 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta	Familia etxebizitzetan bizi ziren 60 urteko eta gehiagoko 1.207 pertsona
2014	Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta	Familia etxebizitzetan bizi ziren 55 urteko eta gehiagoko 2.469 pertsona

PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

2020ko bizi baldintzei buruzko azterlanean, EAEko etxeetan bizi diren 55 urtetik gorako 2.753 pertsonak hartu dute parte. Biztanleriaren lagin adierazgarri honen ezaugarriak taula honetan ikus daitezke:

Laginaren ezaugarriak

Generoa	Kopurua	%
Gizonak	1233	% 44,7
Emakumeak	1527	% 55,3
Adina		
Batez besteko adina		70,3 (27,10)
55-64	1066	% 38,6
65-79	1144	% 41,5
80+	550	% 19,9
Egoera zibila		
Ezkongabeak	366	13,3
Ezkonduak edo elkarrekin bizi direnak	1615	58,5
Bananduak edo dibortzatuak	171	6,2
Alarguna	602	21,8
ED/EDE	6	0,2

Hezkuntza maila		
Lehen hezkuntzaz behekoak	397	14,4
Lehen mailako ikasketak	673	24,4
Bigarren mailako ikasketak eta hortik gorakoak	1657	60
Beste zenbait	1	% 0
ED/EDE	32	% 1,2
Jarduerarekiko lotura		
Lanean	624	% 22,6
Erretiratu edo pentsioduna	1769	% 64,1
Langabezian	104	% 3,8
Etxeko lanak	211	% 7,7
Bestelakoak	37	% 1,4
ED/EDE	14	% 0,5
Egoera ekonomikoa		
600 € baino gutxiago	59	% 2,1
601 eta 900 € bitarte	186	% 6,7
901 eta 1.800 € bitarte	715	% 25,9
1.800 € baino gehiago	1127	% 40,9
Diru sarrerarik gabe	8	% 0,3
ED/EDE	664	% 24,0
Osasun egoera		
Oso ona + Ona	2049	% 74,2
Erdipurdikoa	518	% 18,8
Txarra + Oso txarra	190	% 6,9
ED/EDE	3	% 0,1

AZTERLAN HONETAN ERABILITAKO ALDAGAIK

Gizarte egitura

Bizikidetzak motak

Honi buruzko informazioa jaso da: familia mota, haren osaera, zenbat jenderekin bizi den eta ahaidetasun harremana. Aztertu da, halaber, zer aldaketa izan duten bizikidetzak moduek 2020ko etxe barruko konfinamenduan.

Gizarte sarearekiko harremanen maiztasuna

Aztertu da zenbateko maiztasunarekin izan dituen harremanak adinekoak bere guraso, seme-alaba, anai-arreba zein beste senide batzuekin, eta auzokide, adiskide eta lankideekin, nola aldatu duen harremana COVID-19ak eragindako krisiak, eta baduen gogorik senideak maizago ikusteko.

Galdetu zaie, bestalde, zenbateko distantziara dagoen hurbilena bizi den seme edo alabaren etxea.

Komunitate sentimendua ere neurtu da, Youngek eta haren laguntzaileek 2004an egindako azterketatik eratorritako izen bereko azpieskala erabiliz¹. Zazpi baieztapenen bidez aztertzen du sistema horrek adostasun maila, Likert motako 1etik 5erako erantzun eskala batekin, non 1 erabat desados baita eta 5, berriz, erabat ados. Itemen baturaren kalkulutik ateratzen da emaitza.

Bakardadeak

Etxeko bakardadea

Kide bakarreko familiak sartzen dira aldagai horretan, hots, bakarrik bizi diren pertsonak.

Bakardade objektiboa

Harreman sozialen urritasunari deritzo bakardade subjektiboa, hau da, harremanak hilean behin baino gutxiagotan izateari.

Atzemandako bakardadea

Bi eratara neurtzen da atzemandako bakardadea. Zuzenean galdetzen zaie adinekoei zer maiztasunekin sentitzen diren bakarrik. Bakardade pribatua kuantifikatzeko, De Jong Giervelden sei itemeko Bakardade Eskalaren bertsio laburra erabiltzen da², hiru erantzun kategoriakoa (1: ez; 2: gutxi asko; 3: bai). Eskala horren bidez jasotzen dira adinekoek euren harreman sozialez eta intimitate mailaz egiten dituzten balorazioak (ea eurek nahi baino urriagoak diren harremanak, eta nahi duten

1 Young, A.F., Russell, A. eta Powers J.R. (2004) The sense of belonging to a neighbourhood: can it be measured and is it related to health and well-being in older women? *Social Science & Medicine*, 59, 2627-37.

2 De Jong Gierveld, J. eta van Tilburg, T. (2006). A 6-Item Scale for Overall, Emotional, and Social Loneliness. Confirmatory Tests on Survey Data. *Research on Aging*, 28, 582-598. 10.1177/0164027506289723

intimitate maila lortu duten). Honela lortzen da puntuazioa: erantzunak dikotomizatuta ateratzen diren balioen batuketa eginez. Balio tartea, berriz, 0 eta 6 bitartekoa da (zenbat eta handiagoa puntuazioa, orduan eta handiagoa bakardadea). Bakardadea adierazten dute 2ko puntuazioak eta hortik gorakoak.

Emaitzak

GIZARTE EGITURA

Zahartzaroko gizarte egitura eta bizikidetza ereduak jotzen dira politika gerontologikoak planifikatzeko alderdi nagusietako gisa, batez ere adinekoen behar aldakorren arabera gizarte baliabideak diseinatzeko. Hona zer jorratuko dugun lehenbiziko atal honetan: bizikidetza motei dagozkien emaitzak eta 2020ko etxeko konfinamendu garaian izan zuten aldaketa, adinekoek beren familiarekin eta lagunekin dituzten harreman presentzialen eta ez-presentzialen maiztasuna, ondorengoekiko hurbiltasuna et komunitate sentimendua.

Bizikidetza motak

Egungo egoeraren azterketak erakusten duenez, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 37,5 (ehunekorik handiena) bikotekidearekin bizi dira beren etxean; % 31,5, berriz, belaunaldi anitzeko familietan, eta % 25,6 pertsona bakarreko familietan. 65 urtetik gorakoei dagokienez, pertsona bakarreko familiak dira bigarren ugarietak, hots, bakarrik bizi da 65 urtetik gorakoen herena (% 31,1). Aurrerago aztertuko dugu xeheago familia mota hori, zeinari *etxeko bakardadea* deitzen baitzaio (ikusi epigrafe hau: Etxeko bakardadea).

Sexuaren arabera, desberdinak dira familien egiturak. Gizonezko gehienak (% 43,6) bikotekide batekin bizi dira, eta belaunaldi anitzeko familiak osatzen dituzte beren etxean (% 33,8). Emakumeek, berriz, joera handiagoa dute norbaitekin (% 32,5) edo pertsona bakarreko familietan bizitzeko (% 31,9).

Familien osieran ere nabaritzen da adinaren arabera alderik. Izan ere, adineko «gazteenak» (55-64 urte bitartekoak) belaunaldi anitzeko familietan bizi dira gehienbat, euren etxean (% 46,5); 65-79 urte bitartekoak, berriz, bikotekidearekin bizi dira nagusiki (% 47,6), eta, 80 urteko eta gehiagoko pertsona gehienak, berriz, bakarrik (% 41,6). Honako hau da ibilbiderik ohikoena: hasiera, familia osatzea eta seme-alabak izatea; ondoren, bikote bizitza egitea («habia hutsa» deritzona,

seme-alabek etxetik alde egiten dutenean), eta, azkenik, bakarrik bizitzea, normalean alargun geratzean.

Sexua eta adina batera aztertuta, antzeko joera atzematen da adin tarteka sailkatutako familietan. Dena dela, handiagoa da pertsona bakarreko familietan bizitzeko joera 80 urteko eta hortik gorako emakumeen artean: 80 urtetik gorako ia bi emakumetik bat bakarrik bizi da (% 48,9). Ia bikoiztu egiten du portzentaje horrek adin tarte eta egoera bereko gizonena (% 28,4). Emakumeak urte gehiago bizi ohi direlako gertatzen da hori; honenbestez, ugariagoak dira emakume alargunak gizon alargunak baino, eta beraz, emakume gehiago bizi dira bakarrik zahartzaroan.

Bakarrik bizitzearekin loturik dago, halaber, eguneroko bizitzako jarduera jakin batzuetarako (EBJ) laguntzen beharra, baina kontuan izan behar da nor sartzten diren profil horretan: adinez oso aurrera egin duten eta hirietan bizi diren gizon-emakumeak.

Bizikidetzak mota, sexuaren eta adinaren arabera

	Bizikidetzak motak						p
	Pertsona bakarra	Bikotea	Belaunaldi anitzeko familia, adinekoaren etxean	Belaunaldi anitzeko familia, seme-alabaren etxean	Beste mota bat	ED/EDE	
Guztira + 55	% 25,6	% 37,5	% 31,5	% 1,6	% 3,6	% 0,4	
Guztira + 65	% 31,1	% 42,0	% 22,0	% 1,4	% 3,2	% 0,2	
Sexua							
Gizona	% 17,9	% 43,6	% 33,8	% 1,2	% 3,1	% 0,4	0,000
Emakumea	% 31,9	% 32,5	% 29,5	% 1,9	% 3,9	% 0,3	
Adin tarteak							
55 - 64 urte	% 16,8	% 30,1	% 46,5	% 1,9	% 4,1	% 0,6	0,000
65 - 79 urte	% 26,1	% 47,6	% 23,6	% 1,1	% 1,6	% 0,1	
80 edo gehiago	% 41,6	% 30,5	% 18,7	% 2,0	% 6,5	% 0,5	

Sexua eta adin tartea							
Gizonak, 55-64 urte	% 14,8	% 30,1	% 48,5	% 1,9	% 3,9	% 0,8	
Gizonak, 65-79 urte	% 17,0	% 53,7	% 27,3	% 0,6	% 1,3		
Gizonak, 80+ urte	% 28,4	% 52,1	% 12,4	% 1,0	% 5,7	% 0,5	
Emakumeak, 55-64 urte	% 18,9	% 30,1	% 44,6	% 1,8	% 4,2	% 0,4	0,000
Emakumeak, 65-79 urte	% 33,7	% 42,4	% 20,3	% 1,6	% 1,9	% 0,2	
Emakumeak, 80+ urte	% 48,9	% 19,1	% 22,2	% 2,5	% 7,0	% 0,3	
Ingurunea							
Landatarra	% 21,4	% 38,7	% 33,8	% 2,0	% 3,8	% 0,3	
Bitartekoa	% 24,6	% 33,7	% 36,9	% 1,7	% 3,1		
Hiritarra	% 29,2	% 37,4	% 28,2	% 1,2	% 3,5	% 0,4	0,000
Laguntza beharra							
Ez du laguntzarik behar	% 23,9	% 38,9	% 33,0	% 1,4	% 2,8	% 0,3	
Laguntza behar du	% 35,8	% 30,3	% 23,6	% 2,4	% 7,8	% 0,4	0,000

Inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,4k aldatu egin zuen bizikidetzeta mota COVID-19aren lehenbiziko erasoaldiak eragindako konfinamendu garaian. Portzentaje horretatik, % 55,4 gehienez ere hiru laguneko familietan bizi izan zen, eta % 22,8 bakarrik bizitzen hasi zen. 65 urtetik gorako pertsonen artean, % 28,3koa izan zen bakarrik bizitzen hasi zirenen portzentajea.


Eredu baten adierazle da konfinamendu garaian adinekoek izan zuten bizikidetzeta motaren aldaketa hori, betiere sexuaren eta adinaren arabera aldaketa batzuk tarteko direla. Daturik aipagarrienak hauek ditugu: gizonak baino ia bi aldiz emakume gehiagok igaro zutela bakarrik konfinamendua (gizonak, % 14,7; emakumeak, % 27,1), eta 80 urtetik gorakoena dela konfinamenduan bakarrik egon zirenen portzentajerik handiena (% 39,4).

Konfinamendu garaiko bizikidetzeta mota, sexuaren eta adinaren arabera

	Konfinamendu garaiko bizikidetzeta mota				p
	Bakarrik	Hiru lagun, gehienez	Lau lagun edo gehiago	ED/EDE	
Sexua					
Gizona	% 14,7	% 56,0	% 28,0	% 1,3	0,091
Emakumea	% 27,1	% 55,0	% 16,3	% 1,6	
Guztira, + 55	% 22,8	% 55,4	% 20,3	% 1,5	
Guztira, + 65	% 28,3	% 55,6	% 15,2	% 1,0	
Adin tarteak					
55 - 64 urte	% 17,5	% 55,3	% 25,2	0,019	
65 - 79 urte	% 22,7	% 60,6	% 16,7		
80 edo gehiago	% 39,4	% 45,5	% 12,1	0,030	
Sexua eta adin tarteak					
Gizonak, 55-64 urte	% 18,2	% 50,0	% 29,5	% 2,3	0,057
Gizonak, 65-79 urte	% 14,3	% 57,1	% 28,6		
Gizonak, 80+ urte	% 9,1	% 72,7	% 18,2		
Emakumeak, 55-64 urte	% 18,3	% 58,3	% 21,7	% 1,7	
Emakumeak, 65-79 urte	% 26,7	% 62,2	% 11,1		
Emakumeak, 80+ urte	% 54,5	% 31,8	% 9,1	% 4,5	

Azken hamarkada hauetan, aldatu egin dira Euskadiko adinekoen bizikidetzeta mota. Aldaketa nagusiak familia hauetan atzeman dira: pertsona bakarrekoetan, eta semearen/alabaren etxeko belaunaldi artekoetan. 1993az geroztik, ia bikoiztu egin da bakarrik bizi diren Euskadiko 65 urtetik gorako herritarren portzentajea: % 16,5 1993an, % 31,2 2020an. Aitzitik, nabarmen jaitsi da belaunaldi arteko familietan semearen/alabaren etxean bizi direnen portzentajea (% 15,2 1993an, % 1,4 2020an). Joera demografiko bat adierazten du aldaketa horrek, non geroz eta adineko gutxiago bizi baitira familiarekin, eta geroz eta gehiagok hautatzen baitute independente bizitzea.

Zer bilakaera izan duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen arteko bizikidetza motek (1993-2020)



Gizarte sarearekiko harremanen maiztasuna

Harreman presentzialak

55 urteko edo hortik gorako adinekoek astero dute harremana beren seme-alabaren batekin (% 80,7). Aldiz, % 3,1ek dio ez dituela inoiz ikusten seme-alabak. Oso antzekoak dira portzentajeak 65 urteko eta gehiagoko adinekoen artean ere. Garbi adierazten dute datu horiek zein hurbil dauden Euskadiko adinekoak beren ondorengoetatik, eta zein harreman estua duten haiekiko.

Dena dela, badaude aldeak, profil soziodemografikoaren arabera. Esate baterako, honako hau: eguneroko harreman presentzialari eusten diotenak batez ere emakumeak dira —80 urtetik gorakoak, bereziki—, eta % 40 ingurukoa da batzuen zein besteen portzentajea. Eraitza horiek erakusten digutenez, zenbat eta zaharragoak adinekoak, orduan eta harreman estuagoa seme-alabekin, beharbada laguntza premia handiagoa dela medio. Izan ere, laguntza behar dutenak dira eguneroko harremanari gehiena eusten diotenak.

Bestalde, etxetik kanpo bizi diren seme-alabekin eguneroko harremana izaten duten adinekoen portzentajea handiagoa da beste batzuekin bizi direnen artean (% 38,3) bakarrik bizi direnen artean baino, baina aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Alabaina, seme-alabekiko harremanari dagokionez, alde esanguratsua dago ingurunearen arabera maiztasunean: landa ingurunean

bizi direnak maizago egoten dira euren ondorengoekin hiri ingurunean bizi direnak baino.

Frecuencia de contacto presencial con los hijos/as por perfil sociodemográfico

	Seme-alabekiko harreman presentzialaren maiztasuna							p
	Inoiz ez	Hilean behin ere ez	Hilean behin	Hilean behin baino gehiagotan	As-te-an behin	Astean behin baino gehiagotan	Egu-ne-ro	
Guztira, + 55	% 3,1	% 7,5	% 3,1	% 5,6	% 16,9	% 27,0	% 36,8	
Guztira, + 65	% 1,1	% 6,9	% 2,5	% 5,8	% 18,4	% 28,9	% 36,4	
Sexua								
Gizona	% 2,7	% 8,8	% 4,2	% 5,4	% 18,6	% 27,5	% 32,9	0,004
Emakumea	% 3,4	% 6,5	% 2,3	% 5,7	% 15,6	% 26,7	% 39,8	
Adin tartea								
55 - 64 urte	% 7,6	% 8,8	% 4,5	% 4,8	% 13,5	% 23,0	% 37,8	0,000
65 - 79 urte	% 1,4	% 8,4	% 2,7	% 6,6	% 17,5	% 29,6	% 33,8	
80 edo gehiago	% 0,6	% 4,0	% 2,1	% 4,4	% 20,1	% 27,5	% 41,2	
Sexua eta adin tartea								
Gizonak, 55-64 urte	% 6,3	% 8,8	% 4,6	% 5,3	% 15,1	% 22,2	% 37,7	0,000
Gizonak, 65-79 urte	% 1,2	% 10,8	% 3,7	% 5,4	% 19,9	% 29,7	% 29,3	
Gizonak, 80+ urte	% 0,6	% 4,5	% 4,0	% 5,1	% 20,5	% 30,7	% 34,7	
Emakumeak, 55-64 urte	% 8,6	% 8,8	% 4,4	% 4,4	% 12,1	% 23,6	% 38,1	
Emakumeak, 65-79 urte	% 1,6	% 6,4	% 1,8	% 7,6	% 15,5	% 29,5	% 37,6	
Emakumeak, 80+ urte	% 0,7	% 3,7	% 1,0	% 4,0	% 19,8	% 25,5	% 45,3	
Familia mota								
Kide bakarrekoa	% 4,7	% 8,9	% 2,4	% 6,0	% 16,3	% 30,1	% 31,6	
Kide bat baino gehiagokoa	% 2,6	% 7,1	% 3,3	% 5,5	% 17,1	% 26,2	% 38,3	
Ingurunea								
Landa eremua	% 3,3	% 4,9	% 3,0	% 5,3	% 16,2	% 26,7	% 40,6	0,021
Bitartekoa	% 2,8	% 7,5	% 2,0	% 6,7	% 15,0	% 27,7	% 38,3	
Hiritarra	% 3,0	% 9,7	% 3,4	% 5,5	% 18,0	% 27,2	% 33,2	
Laguntza beharra								
Ez du laguntzarik behar	% 3,4	% 8,0	% 3,5	% 5,9	% 16,6	% 27,0	% 35,6	0,012
Laguntza behar du	% 1,6	% 5,1	% 1,3	% 4,1	% 18,4	% 27,1	% 42,4	

Gurasoekin ere maiz egoten dira adinekoak. Aita edo ama bizirik duten 55 urteko edo hortik gorako adinekoen % 29,3k dio egunero izaten duela harremana presentziala haiekin. Hauek dira harreman maiztasun handieneko taldeak: emakumeak, 55 eta 64 urte bitarteko adinekoak, ezkongabeak eta landa inguruneetan eta bitartekoetan bizi direnak. Emakumeena da harreman maiztasun handiena adin tarte guztietan, beharbada eurek berenganatzen dutelako zaintza lanen zama, genero rola direla eta.

Gurasoekiko harremanaren maiztasuna, profil soziodemografikoaren arabera

	Gurasoekiko harremanaren maiztasuna							p
	Inoiz ez	Hilean behin ere ez	Hilean behin	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero	
Guztira, + 55	% 12,1	% 9,1	% 5,1	% 6,4	% 16,8	% 21,3	% 29,3	
Guztira, + 65	% 26,2	% 8,7	% 8,7	% 6,0	% 10,1	% 13,4	% 26,8	
Sexua								
Gizona	% 13,2	% 7,7	% 5,2	% 8,3	% 21,8	% 20,2	% 23,6	0,002
Emakumea	% 10,9	% 10,3	% 4,9	% 4,9	% 12,4	% 22,1	% 34,5	
Adin tarteak								
55-64 urte	% 8,0	% 9,3	% 3,8	% 6,5	% 18,7	% 23,6	% 30,1	0,000
65-79 urte	% 19,1	% 9,9	% 9,9	% 6,9	% 11,5	% 15,3	% 27,5	
80 edo gehiago	% 82,4						% 17,6	
Sexua eta adin tarteak								
Gizonak, 55-64 urte	% 8,0	% 8,7	% 3,8	% 7,6	% 24,6	% 22,0	% 25,4	0,000
Gizonak, 65-79 urte	% 26,8	% 3,6	% 12,5	% 12,5	% 10,7	% 16,1	% 17,9	
Gizonak 80 urte eta gehiago	% 100,0							
Emakumeak, 55-64 urte	% 8,0	% 9,9	% 4,2	% 5,3	% 12,6	% 25,2	% 34,7	
Emakumeak, 65-79 urte	% 13,2	% 14,5	% 7,9	% 2,6	% 13,2	% 14,5	% 34,2	
Emakumeak 80 urte eta gehiago	% 70,0						% 30,0	
Egoera zibila								
Ezkonduek/Elkarrekin bizi direnak	% 11,6	% 9,3	% 5,7	% 6,7	% 19,9	% 22,4	% 24,4	0,000
Beste zenbait	% 13,5	% 8,4	% 3,4	% 5,6	% 8,4	% 18,0	% 42,7	

Ingurunea							
Landa eremua	% 12,1	% 7,5	% 3,9	% 8,2	% 14,9	% 19,2	% 34,2
Bitartekoa	% 8,5	% 9,6	% 7,4	% 2,1	% 13,8	% 19,1	% 39,4
Hiritarra	% 13,1	% 10,4	% 5,4	% 6,0	% 19,5	% 23,8	% 21,8
0,022							
Laguntza beharra							
Ez du laguntzarik behar	% 11,6	% 9,0	% 5,3	% 6,6	% 17,0	% 21,7	% 28,8
Laguntza behar du	% 19,6	% 11,0	% 1,2	% 3,8	% 13,1	% 14,0	% 37,2

Gutxiago egoten dira anai-arrebekin beste senide batzuekin baino. 55 urtekoak edo hortik gorakoak gutxiago egoten dira senide horiekin (% 31,4k astean behin ikusten ditu anai-arrebak). Beste kasu batzuetan bezala, maizago egoten dira emakumeak gizonak baino.

Beste datu bat: 55-64 urte bitartekoak eta ezkongabeak gehiago egoten dira senideekin. Laguntza beharra ere aldagai esanguratsua da senideen arteko harreman horiei dagokienez: gutxiago egoten dira senideekin laguntza behar dutenak behar ez dutenak baino, osasun eta mugikortasun arazoengatik, seguru aski. Landa inguruneetan eta bitartekoetan bizi direnak, berriz, hiri inguruneetan bizi direnak baino gehiago egoten dira senideekin egunero zein astero (% 18 inguru, kasu bietan).

Anai-arrebekiko edo beste senide batzuekiko harreman presentzialaren maiztasuna, profil soziodemografikoaren arabera

	Anai-arrebekiko edo beste senide batzuekiko harreman presentzialaren maiztasuna							p
	Inoiz ez	Hilean behin ere ez	Hilean behin	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero	
Guztira, + 55	% 5,9	% 25,0	% 10,3	% 11,2	% 16,3	% 17,0	% 14,4	
Guztira, + 55	% 7,7	% 29,1	% 10,4	% 10,0	% 14,4	% 15,0	% 13,4	
Sexua								
Gizona	% 5,0	% 25,6	% 13,1	% 12,2	% 17,3	% 15,7	% 11,1	
Emakumea	% 6,6	% 24,5	% 8,0	% 10,4	% 15,5	% 18,0	% 17,0	0,000
Adin tarteak								
55-64 urte	% 3,2	% 19,0	% 10,3	% 13,0	% 19,0	% 19,8	% 15,7	
65-79 urte	% 6,2	% 27,9	% 11,5	% 10,6	% 15,3	% 15,4	% 13,0	
80 edo gehiago	% 11,7	% 31,8	% 7,5	% 8,5	% 12,1	% 13,8	% 14,6	0,000

Sexua eta adin tartea							
Gizonak, 55-64 urte	% 2,9	% 18,3	% 12,1	% 14,1	% 21,2	% 19,1	% 12,3
Gizonak, 65-79 urte	% 4,2	% 28,8	% 16,3	% 11,4	% 15,3	% 12,9	% 11,0
Gizonak 80 urte eta gehiago	% 13,5	% 38,1	% 6,5	% 8,4	% 11,6	% 13,5	% 8,4
Emakumeak, 55-64 urte	% 3,3	% 19,5	% 8,6	% 12,1	% 17,0	% 20,7	% 18,9
Emakumeak, 65-79 urte	% 7,7	% 27,2	% 7,3	% 9,9	% 15,4	% 17,6	% 14,9
Emakumeak 80 urte eta gehiago	% 10,5	% 28,4	% 8,2	% 8,2	% 12,5	% 14,0	% 18,3
							0,000
Egoera zibila							
Ezkondutako/ elkarrekin bizi direnak	% 5,7	% 25,4	% 11,6	% 12,3	% 17,6	% 16,3	% 11,0
Beste zenbait	% 6,2	% 24,4	% 8,4	% 9,6	% 14,1	% 18,0	% 19,3
							0,000
Ingurunea							
Landa eremua	% 5,7	% 22,6	% 8,1	% 10,6	% 16,6	% 18,1	% 18,3
Bitartekoa	% 4,3	% 25,7	% 12,5	% 8,3	% 14,2	% 18,2	% 16,8
Hiritarra	% 6,3	% 26,8	% 11,6	% 12,6	% 16,5	% 15,7	% 10,4
							0,000
Laguntza beharra							
Ez du laguntzarik behar	% 4,3	% 24,5	% 10,8	% 11,4	% 16,7	% 17,6	% 14,6
Laguntza behar du	% 15,7	% 27,8	% 7,1	% 9,9	% 13,3	% 13,2	% 13,0
							0,000

Aztertu dugu, halaber, zenbateko gogoia duten adinekoek senideak maizago ikusteko. Eraitzen arabera, 55 urtetik gorako Euskadiko 10 herritarretik ia 6k nahi adina aldiz ikusten dituzte senideak (% 59,6); % 38,6k, berriz, gehiagotan ikusi nahi lituzke.

Gizonek emakumeek baino lotura estuagoa dute senideak ikusteko gogoaren eta haiekiko harremanaren artean (% 62,5 eta % 57,2, hurrenez hurren). Adinari dagokionez, ez da alde handirik nabaritzen tarteen artean: hamarretik seik diote nahi adina aldiz ikusten dituztela senideak. Bestalde, handiagoa da senideak ikusi nahi lituzketen emakumeen portzentajea gizonena baino. Gauza bera gertatzen da laguntza behar dutenen artean.


Zer familia mota den, handiak dira aldeak: eraitzen arabera, gehiago ikusten dituzte senideak nahi aldina aldiz pertsona bakarrekotan bizi direnek (% 62,7) beste pertsona batzuekin bizi direnek baino (% 58,5). Batzuen eta besteen egiazko harreman maiztasunaren arabera dira eraitza eredu horiek; honenbestez, zenbat eta urriagoa harremana, orduan eta handiagoa senideak ikusteko gogoia.

Zeinek ikusten dituen senideak nahi adina aldiz, profil soziodemografikoaren arabera

	Zeinek ikusten dituen senideak nahi adina aldiz					p
	Nahi adina aldiz	Gehiagotan ikusi nahi lituzke	Gutxiagotan ikusi nahi lituzke	Ez du senitar-tekorik	ED/EDE	
Guztira, + 55	% 59,6	% 38,6	% 0,5	% 0,4	% 0,9	
Guztira, + 65	% 58,7	% 39,4	% 0,4	% 0,5	% 1,0	
Sexua						
Gizona	% 62,5	% 36,3	% 0,2	% 0,3	% 0,7	
Emakumea	% 57,2	% 40,4	% 0,7	% 0,5	% 1,2	0,033
Adin tartea						
55-64 urte	% 61,0	% 37,2	% 0,8	% 0,2	% 0,9	
65-79 urte	% 58,7	% 39,8	% 0,4	% 0,5	% 0,5	
80 edo gehiago	% 58,7	% 38,4	% 0,4	% 0,5	% 2,0	0,149
Sexua eta adin tartea						
Gizonak, 55-64 urte	% 65,0	% 34,2		% 0,2	% 0,6	
Gizonak, 65-79 urte	% 60,9	% 38,2	% 0,6	% 0,2	% 0,2	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 60,4	% 37,0		% 1,0	% 1,6	
Emakumeak, 55-64 urte	% 57,1	% 40,2	% 1,4	% 0,2	% 1,1	
Emakumeak, 65-79 urte	% 56,9	% 41,3	% 0,3	% 0,8	% 0,6	
Emakumeak 80 urte eta gehiago	% 57,7	% 39,2	% 0,6	% 0,3	% 2,2	0,011
Familia mota						
Kide bakarrekoa	% 62,7	% 35,3	% 0,1	% 0,9	% 1,0	
Kide bat baino gehiagokoa	% 58,5	% 39,8	% 0,6	% 0,2	% 0,9	0,000
Laguntza beharra						
Ez du laguntzarik behar	% 60,6	% 37,8	% 0,5	% 0,4	% 0,3	
Laguntza behar du	% 53,8	% 42,6	% 0,6	% 0,3	% 2,2	0,000

Azken hamarkadan (2010-2020), % 32,5etik % 39,4ra igo da senideak gehiagotan ikusi nahi lituzketen 65 urtetik gorakoen portzentajea. Kontuan izan behar da COVID-19ak adinekoen eta haien senideen arteko harremanetan izan duen eragina.

Zer bilakaera izan duen «senideak nahi adina aldiz ikusi» aldagaiak 65 urteko eta gehiagokoekin artean (2010-2020)



Familiakoak ez diren beste batzuekiko harremani dagokienez, astero egoten dira 55 urteko eta hortik gorako adineko gehienak lagunekin eta auzoekin (% 83,04); % 38,6, berriz, egunero. Ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean, baina bai adin tarteei dagokienez. Nahiko egonkorra da asteroko harremana aztertutako adin tarte guztietan, baina badago datu adierazgarri bat: 80 urtetik gorakoek % 43,8 egunero egoten da lagunekin edo auzoekin, batez ere emakumeak. Aldiz, gutxiago egoten dira adin tarte gazteenekoak (55-64 urte), lan merkatuan eta familiaren erantzukizunetan gehiago esku hartzen dutelako, seguruenik. Dena dela, ez dezagun ahantzi auzotasunak indar handiagoa duela gizarte tradizionaletan eta, beraz, errotuagoa dagoela adinean oso aurrera egin duen jendearen artean. Gertatu ohi da, bestalde, jende horrek urte asko eraman ohi dituela auzo berean bizitzen.


Familia barruko harremanetan bezala, lagunen eta auzoen artekoetan ere atzematen da honako hau: bakarrik bizi direnek gehiago eusten diote eguneroko harremanari, bai eta landa inguruneetan eta bitartekoetan bizi direnek eta laguntzarik behar ez dutenek ere. Aipatutako multzoetako hamar lagunetik ia lau egunero egoten dira lagunekin eta auzoekin.

Zenbatetik behin egoten diren adinekoak lagunekin eta auzoekin, sexuaren eta adinaren arabera

	Zenbatetik behin izaten den harreman presentziala lagunekin eta auzoekin							P
	Inoiz ez	Hilean behin ere ez	Hilean behin	Hilean behin baino gehia-gotian	Astean behin	Astean behin baino gehia-gotian	Egunero	
Gutzira, + 55	% 4,2	% 4,2	% 3,8	% 4,8	% 16,0	% 28,4	% 38,6	
Gutzira, + 65	% 5,3	% 4,3	% 3,3	% 4,0	% 13,6	% 27,4	% 42,0	
Sexua								
Gizona	% 4,5	% 3,3	% 4,3	% 5,0	% 17,2	% 28,5	% 37,2	
Emakumea	% 3,8	% 4,9	% 3,4	% 4,7	% 15,1	% 28,4	% 39,7	
Adin tartea								
55-64 urte	% 2,4	% 4,1	% 4,5	% 6,1	% 19,7	% 30,0	% 33,2	
65-79 urte	% 3,8	% 3,7	% 3,6	% 4,5	% 14,5	% 28,6	% 41,3	0,000
80 edo gehiago	% 8,8	% 5,5	% 2,6	% 2,9	% 11,8	% 24,6	% 43,8	
Sexua eta adin tartea								
Gizonak, 55-64 urte	% 2,6	% 3,6	% 4,0	% 5,3	% 17,6	% 32,5	% 34,5	
Gizonak, 65-79 urte	% 3,3	% 2,5	% 4,5	% 4,9	% 7,9	% 27,8	% 39,1	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 13,7	% 5,1	% 4,6	% 4,6	% 13,1	% 19,4	% 39,4	
Emakumeak, 55-64 urte	% 2,2	% 4,6	% 5,0	% 6,9	% 1,6	% 27,7	% 32,0	0,000
Emakumeak, 65-79 urte	% 4,3	% 4,7	% 2,8	% 4,2	% 11,6	% 29,2	% 43,2	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 5,7	% 6,0	% 1,9	% 2,2	% 10,7	% 27,7	% 45,9	
Familia mota								
Kide bakarrekoa	% 3,6	% 4,0	% 1,9	% 3,0	% 12,5	% 27,5	% 47,5	0,000
Kide bat baino gehiagokoa	% 4,4	% 4,3	% 4,4	% 5,5	% 17,2	% 28,6	% 35,6	
Ingurunea								
Landa eremua	% 3,6	% 4,7	% 3,8	% 4,9	% 14,1	% 25,9	% 3,0	
Bitartekoa	% 5,0	% 2,9	% 2,6	% 4,1	% 15,3	% 26,2	% 43,8	0,001
Hiritarra	% 4,5	% 4,2	% 4,1	% 4,9	% 17,7	% 31,1	% 33,5	
Laguntza beharra								
Ez du laguntzarik behar	% 3,1	% 3,7	% 3,9	% 5,1	% 15,8	% 28,8	% 39,6	
Laguntza behar du	% 10,7	% 7,3	% 3,0	% 3,4	% 17,2	% 26,2	% 32,3	0,000

Azken urteotako bilakaerak erakusten duenez, aldaketa batzuk izan dira senideekin, lagunekin eta auzoekin egunero egoten diren 65 urtetik gorakoen portzentajeen. 2014 eta 2018 arteko datuen arabera, gora egin du portzentajeak, batez ere lagunetik harremanenak. Bikoiztu egin da gurasoekiko harremana azken hamarkadan; lagunetikoa, berriz, % 56tik % 65,9ra igo da 2014tik 2020ra. Joera horiek adierazten digutenez, areagotzen ari da beste pertsona batzuekiko eguneroko harremana.

Zer bilakaera izan duen 65 urteko eta gehiagoko arteko eguneroko harreman presentzialak (2014-2020)



Harreman ez-presentziala

Telefono, Internet edo posta bidezko harreman ez-presentzialari dagokionez, hau diote emaitzek: Euskadiko 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 64,1ek egunero izaten ditu; % 92,8k, berriz, astero. Kasu honetan ere emakumeak, 55-64 urte bitarteko herritarrek eta adinez oso aurrera egin dutenak dira nagusi, bai eta bakarrik bizi eta hiri inguruneetan bizi direnak ere. Multzo horietako herritarrek dituzte portzentajerik handienak harreman ez-presentzialari dagokionez.

Adin tarte guztietan da handiagoa emakumeen eguneroko harreman ez-presentziala, baina behera egiten du portzentajeak haiek zahartu ahala. Gizonen artean, berriz, 80 urtetik gorako artean dago portzentajerik handiena. Bestalde, hiri inguruneetan bizi direnek gainerakoek baino gehiago izaten dute harreman mota hori, seguru aski presentzialki izaten ez duten edo zailagoa zaien harremana konpentsatzeko.

Telefono, Internet eta posta bidezko harreman ez-presentzialaren maiztasuna

	Harreman ez-presentzialaren maiztasuna							P
	Inoiz ez	Hilean behin ere ez	Hilean behin	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egu-ne-ro	
Guztira, + 55	% 1,0	% 1,5	% 1,4	% 3,2	% 7,9	% 20,8	% 64,1	
Guztira, + 65	% 1,2	% 1,4	% 1,4	% 3,6	% 7,9	% 21,4	% 63,2	
Sexua								
Gizona	% 1,4	% 2,4	% 2,0	% 4,4	% 9,1	% 23,8	% 57,1	0,000
Emakumea	% 0,7	% 0,7	% 1,0	% 2,3	% 7,0	% 18,5	% 69,8	
Adin tartea								
55-64 urte	% 0,8	% 1,6	% 1,5	% 2,7	% 7,9	% 19,9	% 65,6	0,001
65-79 urte	% 0,6	% 0,9	% 1,3	% 4,0	% 9,3	% 22,0	% 61,9	
80 edo gehiago	% 2,2	% 2,4	% 1,5	% 2,6	% 5,0	20,2%	% 66,0	
Sexua eta adin tartea								
Gizonak, 55-64 urte	% 1,4	% 2,9	% 2,3	% 3,7	% 8,0	% 24,1	% 57,6	0,000
Gizonak, 65-79 urte	% 0,8	% 1,3	% 1,5	% 5,5	% 10,7	% 25,6	% 54,5	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 3,7	% 3,2	% 2,1	% 3,2	% 7,5	% 17,1	% 63,1	
Emakumeak, 55-64 urte	% 0,4	% 0,4	% 0,7	% 1,8	% 8,0	% 15,9	% 72,8	
Emakumeak, 65-79 urte	% 0,5	% 0,5	% 1,1	% 2,9	% 7,9	% 18,9	% 68,2	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 1,7	% 2,0	% 1,1	% 2,3	% 3,7	% 21,7	% 67,5	
Familia mota								
Kide bakarrekoa	% 1,4	% 1,3	% 1,7	% 1,8	% 6,4	% 17,6	% 69,7	0,008
Kide bat baino gehiagokoa	0,9%	% 1,5	% 1,3	% 3,8	% 8,4	% 21,9	% 62,1	
Ingurunea								
Landa eremua	% 1,0	% 1,8	% 2,2	% 3,4	% 10,0	% 20,4	% 61,2	0,010
Bitartekoa	% 1,2	% 2,0	% 0,9	% 4,1	% 8,7	% 21,7	% 61,4	
Hiritarra	% 1,0	% 1,1	% 1,0	% 2,9	% 6,0	% 20,9	% 67,0	

Txosten honetarako inkesta COVID-19ak eragindako pandemiaren garaian egina denez, aztertu da zenbat aldatu zen 2020ko udan senideekiko harreman orokorraren maiztasuna, aurreko urteko epe berarekin alderatuta. 55 urteko eta hortik gorako erdiek diotenez (% 53,6), lehengo maiztasun bera izan zuen senide eta lagunetikiko harremanaren maiztasunak. Aldiz, % 28,6k dio jaitsi egin zela senideekikoa, eta % 32,1ek, berriz, lagunetikikoa. COVID-19aren krisiak eguneroko bizimoduan duen inpaktua txostenean jaso dira emaitzen xehetasunak.

Seme edo alaba hurbilenarekiko distantzia

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, seme-alabekin bizi dira 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 27,5; gainerakoetatik, berriz, % 39,5 seme edo alaba hurbilenetik kilometro batera baino gutxiagora bizi da, eta % 25,6, azkenik, 1-5 km bitarteko distantziara. Beste hitz batzuekin esanda, seme-alabekin bizi ez diren 55 urtetik gorako hamar herritarretik sei haiengandik bost kilometrotik beherako distantziara daude. «Urrutiko intimitatea» deitzen zaio formula horri.


Hona seme-alabengandik hurbilen bizi direnen profila: emakumeak, 65 urtetik gorakoak, laguntza behar dutenak eta landa inguruneetan edo bitartekoetan bizi direnak. Datuak generoaren arabera aztertuta, hau ondorioztatzen da: gehiago dira seme edo alaba hurbilenarengandik distantzia txikira bizi diren emakumeak gizonak baino. Adinaren arabera aztertuta, 80 urteko edo hortik gorako adinekoak dira semearen edo alaba hurbilenarengandik gertuena bizi direnak. Aldiz, gazteen artean gora egin du gutxienez 500 km-ra edo beste herrialde batean bizi direnen kopuruak.

Hurbilena bizi den seme edo alabaren etxerako distantzia, profil soziodemografikoaren arabera

	Hurbilena bizi den seme edo alabaren etxerako distantzia								p
	Eraikin berean, baina ez etxe berean	<1 km	1-5 km	6-25 km	26-100 km	101-500 km	> 500 km, herrialde berean	> 500 km, beste herrialde batean	
Guztira, + 55	% 2,9	% 36,6	% 25,6	% 14,7	% 4,8	% 4,7	% 1,7	% 2,4	
Guztira, + 65	% 3,2	% 39,3	% 26,3	% 15,0	% 3,9	% 4,2	% 1,6	% 2,0	
Sexua									
Gizona	% 2,0	% 33,4	% 27,4	% 15,2	% 5,3	% 6,3	% 2,3	% 3,1	
Emakumea	% 3,5	% 39,2	% 24,2	% 14,4	% 4,4	% 3,5	% 1,3	% 1,9	0,003
Adin tarteak									
55-64 urte	% 1,9	% 28,6	% 23,5	% 13,9	% 7,3	% 6,2	% 2,1	% 3,8	
65-79 urte	% 3,5	% 37,6	% 25,7	% 14,7	% 4,4	% 4,8	% 1,9	% 2,9	
80 edo gehiago	% 2,5	% 42,7	% 27,6	% 15,6	% 2,9	% 3,1	% 1,1	% 0,2	<0,000
Sexua eta adin tarteak									
Gizonak, 55-64 urte	% 1,2	% 24,4	% 23,2	% 18,3	% 8,0	% 6,1	% 2,1	% 4,7	
Gizonak, 65-79 urte	% 2,6	% 31,9	% 28,7	% 15,1	% 5,2	% 7,2	% 2,5	% 3,5	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 1,7	% 46,2	% 29,1	% 12,0	% 2,6	% 4,9	% 2,0	% 0,4	
Emakumeak, 55-64 urte	% 2,5	% 31,8	% 23,8	% 10,5	% 6,7	% 6,3	% 2,1	% 3,0	
Emakumeak, 65-79 urte	4,3%	42,2%	23,2%	14,4%	3,9%	2,9%	1,3%	2,5%	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 3,0	% 40,4	% 26,6	% 18,0	% 3,2	% 1,9	% 0,5	% 0,0	<0,000
Familia mota									
Kide bakarrekoa	% 2,8	% 36,4	% 24,7	% 13,6	% 5,1	% 4,5	% 1,4	% 1,8	
Kide bat baino gehiagokoa	% 2,9	% 36,9	% 26,2	% 15,1	% 4,6	% 4,9%	% 1,9	% 2,7	0,001
Laguntza beharra, guztira									
Ez du laguntzarik behar	% 3,0	% 35,2	% 35,2	% 14,8	% 5,1	% 4,8	% 1,9	% 2,9	
Laguntza behar du	% 2,2	% 43,2	% 43,2	% 14,5	% 3,5	% 4,5	% 1,0	% 0,4	<0,000
Ingurunea									
Landa eremua	% 4,6	% 40,1	% 19,3	% 18,3	% 6,7	% 3,7	% 0,8	% 1,8	
Bitartekoa	% 1,8	% 44,0	% 15,5	% 19,3	% 4,0	% 5,2	% 1,1	% 2,4	
Hiritarra	% 1,7	% 32,1	% 33,1	% 10,8	% 3,4	% 5,5	% 2,6	% 2,9	<0,000

Etheen arteko distantziak 2010-2020 epean izandako bilakaera aztertuta, ikusten da gora egin duela bere seme edo alaba hurbilenarengandik 1-5 km-ra bizi diren 65 urtetik gorako herritarren portzentajeak. Aldiz, behera egin du etxe berean bizi direnen kopuruak. Beraz, jaitsi egin da etxe bereko bizikideen kopurua, baina elkarrengandik gertuago daude adinekoen eta haien seme-alaben etxeak.

Zer bilakaera izan duen seme edo alaba hurbilenarekiko distantziak 65 urteko eta gehiagokoan artean (2010-2020)



Komunitate sentimendua

Ikerketa honetan komunitate sentimendua aztertzearen, zazpi galdera egin ditugu, horien bidez jasotzeko jendeak berez auzoari eta auzokideekiko harremani buruz dituen iritziak (Young et al., 2004). Galderen erantzunek erakusten dutenez, komunitate sentimendu sendoa dute Euskadiko 55 urteko eta hortik gorako herritarrek. Hala, 7tik 35era bitarteko puntu eskala batean, 26,7koa da batez besteko komunitate sentimendua. Emakumeak, 80 urtetik gorako herritarrek, bakarrik bizi direnak eta landa zein bitarteko inguruneetakoak dira sentimendu handiena adierazten dutenak.

Eskalako item guztietatik, baieztapen hauek jaso zituzten puntuaziorik handienak (% 95etik gora bat zetorren baieztapenekin): «nire auzoek errespetuz tratatzen naute» eta «gustatzen zait bizi naizen lekuan bizitzea». Adostasun maila handia eskuratu zuten beste esaldi hauek ere: «normalean, fidatzen naiz nire auzoez, eta badakit nire ondasunak zainduko dituztela» eta «gure auzoko jendea beti dago prest elkarri laguntzeko».

Komunitate sentimendua, profil soziodemografikoaren arabera

	Komunitate sentimendua	p
	Batezbestekoa	
Guztira, + 55	26,7	
Guztira, + 65	26,9	
Sexua		
Gizona	27,4	
Emakumea	27,9	0,002
Adin tartea		
55-64 urte	26,4	
65-79 urte	26,8	0,001
80 edo gehiago	27,2	
Sexua eta adin tartea		
Gizonak, 55-64 urte	27,4	
Gizonak, 65-79 urte	27,2	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	27,8	
Emakumeak, 55-64 urte	27,3	
Emakumeak, 65-79 urte	28,1	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	28,4	<0,000
Familia mota		
Kide bakarrekoa	28,0	
Kide bat baino gehiagokoa	27,5	0,010
Laguntza beharra		
Ez du laguntzarik behar	27,6	
Laguntza behar du	27,8	0,415
Ingurunea		
Landa eremua	27,9	
Bitartekoa	27,8	
Hiritarra	27,4	0,036

BAKARDADEAK

Fenomeno konplexua da bakardadea, eta gizaki guztiok jasaten dugu — neurri handiagoan zein txikiagoan— gure bizi zikloan. Dena dela, egoera oso desberdinak adieraz ditzake «bakardadea» hitzak. Bakardade mota bakoitzaren xehetasunak azalduko ditugu atal honetan: etxeko bakardadea, bakardade objektiboa eta bakardade subjektiboa. Bestalde, mota bakoitzaren alderdirik aipagarrienak zein diren ikusiko dugu, eta egoera horiek noiz agertzen diren batera eta noiz bakarka aztertuko.

Etxeko bakardadea: bakarrik bizitzea

Inkestako datuen arabera, etxeko bakardadea jasaten du 55 urteko edo hortik gorako Euskadiko herritarren % 25,5ek; beste era batera esanda, bakarrik bizi da. Egoera horretan dago 65 urtetik gorako gizon-emakumeen % 31,1. Emakumeak eta adinean aurrera egin dutenak, horra bakarrik bizi direnen profil nagusia. Ia bikoiztu egiten du bakarrik bizi diren emakumeen portzentajeak egoera berean dauden gizonena: emakumeak, % 31,8; gizonak, % 17,8. Adinaren arabera, berriz, askoz gehiago dira bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako herritarrak hain zaharrak ez direnak baino: bakarrik bizi dira 80 urte baino gehiagoko % 41,6; 55-64 urte bitartekoei dagokionez, berriz, % 16,8. Batik bat 80 urtetik gorako emakumeek dute bakarrik bizitzeko joera, ia bitik batek. Beraz, adinean aurrera egin duten emakumeekin lotu ohi da etxeko bakardadea. Egoera zibilari dagokionez, berriz, ezkongabeak, dibortziatuak edo alargunak dira bakarrik bizi diren adinekoak; horrez gain, hiritar ingurunea dute bizileku, eta laguntza behar dute.

Ettxeko bakardadea, profil soziodemografikoaren arabera

	Ettxeko bakardadea		p
	Bai	Ez	
Guztira, + 55	% 25,5	% 74,1	
Guztira, + 65	% 31,1	% 68,7	0,000
Sexua			
Gizona	% 17,8	% 81,8	
Emakumea	% 31,8	% 68,0	0,000
Adin tartea			
55-64 urte	% 16,8	% 82,6	
65-79 urte	% 26,0	% 74,0	
80 edo gehiago	% 41,6	% 57,8	0,000
Sexua eta adin tartea			
Gizonak, 55-64 urte	% 14,7	% 84,5	
Gizonak, 65-79 urte	% 17,0	% 83,0	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 28,5	% 71,0	
Emakumeak, 55-64 urte	% 18,9	% 80,8	
Emakumeak, 65-79 urte	% 33,5	% 66,3	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 48,7	% 51,0	0,000
Egoera zibila			
Ezkonduak/elkarrekin bizi direnak	% 0,5	% 99,4	
Beste zenbait	% 60,9	% 38,5	0,000
Ingurunea			
Landa eremua	% 21,4	% 78,4	
Bitartekoa	% 24,3	% 75,7	
Hiritarra	% 29,2	% 70,3	0,000
Laguntza beharra			
Ez du laguntzarik behar	% 23,8	% 75,9	
Laguntza behar du	% 35,6	% 63,8	0,000

Bakardade objektiboa: harreman eskasa gizarte sarearekin

Harreman sozialik ezari edo gabezia objektiboari dagokio bakardadearen alderdi hori, eta isolamendu soziala ere deitzen zaio. Harreman sare txikia dute egoera horretan bizi direnek, bai familian bai familiatik kanpo; jende gutxirekin egoten dira, eta gutxitan. Horrek adierazten du, hain zuzen ere, pertsona bakoitzaren errealitate sozialaren alderik objektiboena^{3,4}.

Hileroko harremana irizpide gisa daukaten lehenagoko azterketa batzuk oinarri harturik, honako hau hartu da bakardade objektiboaren adierazletzat harreman lotura bakoitzerako: harremanen maiztasuna hilean behin baino txikiagoa izatea. Inkestaren emaitzek dioskutenez, 55 urtetik aurrerako herritarren % 9,7k ez du harremanik inongo seniderekin ezta hilean behin ere. Beste modu batera esanda, gizartetik isolatuta geratzeko arriskuan egon daiteke. Oso antzekoa da portzentajea 65 urteko eta gehiagoko adinekoen artean ere (% 9,0).

Familia barruan bakardade objektiboa pairatzen dutenen profila ez da aldatzen ez adinaren ez sexuaren arabera, ez behintzat maila estatistikoan. Kasu guztietan, inkestan parte hartu dutenen % 10 inguru dira. Azterketa honen emaitzek diotenez, 80 urtetik gorakoen familiako bakardade objektiboa (% 7,8) txikiagoa da adin tarte txikiago batekoena baino.

Aldagai horiez gain, egoera zibila eta ingurunea ere aztertu dira, baina ez dute aldaketarik ekarri emaitzetara. Ezkongabeak eta ingurune hiritarrean bizi direnek jasaten dute familia barruko bakardade objektiborik larriena, hots, hilean behin ere ez dira egoten senideren batekin.

³ Lubben, J.E. eta Gironda, M.W. (2000). Social support networks. In Osterweil, D., Brummel-Smith, K. eta Beck, J.C. (arg.). *Comprehensive geriatric assessment*. (121-137 or.). New York: McGraw-Hill.

⁴ Wenger, G.C. (1991). A network typology: from theory to practice. *Journal of Aging Studies*, 5, 147-162.

Familia barruko bakardade objektiboa, profil soziodemografikoaren arabera

	Familia barruko bakardade objektiboa		p
	Bai	Ez	
Guztira, + 55	% 9,7	% 90,3	
Guztira, + 65	% 9,0	% 91,0	
Sexua			
Gizona	% 10,5	% 89,5	
Emakumea	% 9,1	% 90,9	
Adin tartekak			
55-64 urte	% 10,7	% 89,3	
65-79 urte	% 9,6	% 90,4	
80 edo gehiago	% 7,8	% 92,2	
Sexua eta adin tartea			
Gizonak, 55-64 urte	% 11,1	% 88,9	0,062
Gizonak, 65-79 urte	% 11,6	% 88,4	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 5,2	% 94,8	
Emakumeak, 55-64 urte	% 10,4	% 89,6	
Emakumeak, 65-79 urte	% 7,9	% 92,1	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 9,2	% 90,8	
Egoera zibila			
Ezkonduak/elkarrekin bizi direnak	% 7,7	% 92,3	
Beste zenbait	% 12,5	% 87,5	0,000
Laguntza beharra			
Ez du laguntzarik behar	% 9,8	% 90,2	
Laguntza behar du	% 9,2	% 90,8	
Ingurunea			
Landa eremua	% 7,1	% 92,9	
Bitartekoa	% 8,6	% 91,4	
Hiritarra	% 12,0	% 88,0	0,000

Definizioaren banaketari jarraikiz, bereiz azalduko ditugu familia sarekoak ez direnekiko harreman urriak (lagunekikoak, auzoekikoak eta lankideekikoak). Sare sozial horiekiko harremanak senideekikoak baino ugarixeagoak dira. Izan ere, 55 urteko edo hortik gorako adinekoen % 10,1ek harreman eskasa du beste pertsona batzuekin.

Emakumeek, 80 urtetik gorakoek, ezkongabeek eta laguntza behar dutenek pairatzen dute bakardade objektiborik larriena lagunei eta auzoei dagokienez: hilean behin ere ez dituzte ikusten. Senideekiko harremanetan ez bezala, adinean aurrera egin dutenek jasaten dute bakardade objektiborik handiena (% 20,2k) adin tarte gazteagoko jendearekin alderatuta (55-64 urte artekoetatik, esate baterako, % 6,6k), emakumeek izan ezik, zeinen artean 65-79 urte bitartekoak baitira nagusi. Inguruneak, berriz, ez du alderik eragiten familiaz kanpokoekiko harremanetako bakardade objektiboan.

Familiaz kanpoko bakardade objektiboa, profil soziodemografikoaren arabera

	Familiaz kanpoko bakardade objektiboa		p
	Bai	Ez	
Guztira, + 55	% 10,1	% 89,9	
Guztira, + 65	% 6,6	% 93,4	0,000
Sexua			
Gizona	% 8,8	% 91,2	
Emakumea	% 11,1	% 88,9	0,040
Adin tarteak			
55-64 urte	% 6,6	% 93,4	
65-79 urte	% 8,5	% 91,5	
80 edo gehiago	% 20,2	% 79,8	0,000
Sexua eta adin tarteak			
Gizonak, 55-64 urte	% 5,5	% 94,5	
Gizonak, 65-79 urte	% 6,6	% 93,4	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 23,4	% 76,6	
Emakumeak, 55-64 urte	% 7,5	% 92,5	
Emakumeak, 65-79 urte	% 10,1	% 89,9	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 18,4	% 81,6	0,000
Egoera zibila			
Ezkonduek/elkarrekin bizi direnak	% 8,9	% 91,1	
Beste zenbait	% 11,7	% 88,3	0,018
Ingurunea			
Landa eremua	% 9,9	% 90,1	
Bitartekoa	% 8,8	% 91,2	
Hiritarra	% 10,6	% 89,4	0,634
Laguntza beharra			
Ez du laguntzarik behar	% 8,1	% 91,9	
Laguntza behar du	% 21,0	% 79,0	0,000

Bakardade subjektiboa: bakardadearen esperientzia subjektiboa

Bakardadearen alderdi subjektiboa aztertuko dugu atal honetan, hau da, harreman sozialen arloan adinekoek dituzten gabezien pertzepzioa⁵. Bi prozedura metodologiko nagusiren bidez egin da Euskadiko adinekoen bakardadearen maila jakiteko neurketa enpirikoa: bakardade publikoa (edo bakardade adierazia), alde batetik; bestetik, bakardade pribatua. Ohartuko zaretenez, prozedura bat ala bestea erabili emaitzak ez dira berdinak; garbi dago, beraz, alde handia dagoela pertsona batek sentitzen duen bakardadearen eta adieraztera ausartzen denaren artean. Izan ere, adineko askok ez du aitortu nahi izaten bakarrik sentitzen dela, egoera aitortu nahi ez duelako, edo besteen epaiaren beldur delako. Gizarteak ez du begi onez ikusten bakardadea, eta estigma horri atxikirik daude desberdintasun horietatik gehienak. Adineko asko lotsatu egiten dira jasaten duten bakardadeaz; ez dute onartzen egoera, eta tabu izatera irits daiteke⁶.

Bakardade adierazia

Bakardade adierazia neurtzeko, adinekoei beren sentimenduez eta bakardade esperientziez egiten zaien galdera honen zuzeneko erantzunari begiratu behar zaio: «Zenbatean behin sentitzen zara bakarrik?». Kasu honetan, 55 urteko eta hortik gorako Euskadiko herritarren % 7,2k pairatzen du bakardade adierazia edo publikoa, eta % 8,1ekoa da portzentajea 65 urtetik gorakoaren artean. Sarritan, ia beti edo beti bakarrik sentitzen direla diote bakardade mota hori jasaten dutenek.

Hauek dira bakarrik sentitzen direla diotenetatik gehienak: emakumeak, adinean aurrera doazenak, ezkongabeak, bakarrik eta ingurune herritar edo erdihiritarretan bizi direnak eta laguntza behar dutenak. Ugariagoa da bakardade adierazia emakumeen artean (% 8,5) gizonen artean baino (% 5,7); bestalde, bikoiztu egiten du bakarrik sentitzen direla dioten 80 urteko eta hortik gorako herritarren portzentajeak hortik beherakoena (% 11,5 eta % 5,8, hurrenez hurren).

Itxura batean, adinak aurrera egin ahala areagotu egiten da bakardade sententzioa, baina zenbait ikerketaren arabera adinak ez ezik beste

⁵ De Jong Gierveld, J. (1998). A review of loneliness: concept and definitions, determinants and consequences. *Reviews in Clinical Gerontology*, 8, 73–80.

⁶ Killeen, C. (1998). Loneliness: An epidemic in modern society. *Journal of Gerontological Nursing*, 44(8), 11-17.

faktore batzuek ere sustatzen dute sentipen hori; esate baterako, bikotekidearen eta lagunen heriotzak, osasunaren edo autonomiaren galerak.... Izan ere, zaharrenen adin tartean maiz gertatu ohi dira horrelakoak. Uste horrekin bat datoz inkesta honetan jasotako datuak, emaitzak aztertu ondoren.

Bakardade adierazia, profil soziodemografikoaren arabera

	Bakardade adierazia			p
	Bai	Ez	ED/EDE	
Guztira, + 55	% 7,2	% 91,8	% 1,0	
Guztira, + 65	% 8,1	% 90,4	% 1,4	0,002
Sexua				
Gizona	% 5,7	% 93,1	% 1,2	
Emakumea	% 8,5	% 90,7	% 0,9	0,014
Adin tartea				
55-64 urte	% 5,8	% 93,9	% 0,4	
65-79 urte	% 6,5	% 92,8	% 0,7	
80 edo gehiago	% 11,5	% 85,4	% 3,0	0,000
Sexua eta adin tartea				
Gizonak, 55-64 urte	% 4,8	% 94,9	% 0,2	
Gizonak, 65-79 urte	% 6,7	% 92,9	% 0,5	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 4,6	% 94,6	% 0,9	
Emakumeak, 55-64 urte	% 8,1	% 91,4	% 0,5	
Emakumeak, 65-79 urte	% 10,9	% 84,2	% 4,9	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 11,9	% 86,1	% 2,0	0,000
Familia mota				
Kide bakarrekoa	% 14,1	% 84,8	% 1,1	
Kide bat baino gehiagokoa	% 4,8	% 94,3	% 1,0	0,000
Egoera zibila				
Ezkonduak/elkarrekin bizi direnak	% 3,0	% 96,5	% 0,5	
Beste zenbait	% 13,2	% 85,0	% 1,8	0,000
Ingurunea				
Landa eremua	% 6,4	% 92,9	% 0,7	
Bitartekoa	% 9,7	% 88,8	% 1,5	
Hiritarra	% 7,2	% 91,6	% 1,1	
Laguntza beharra				
Ez du laguntzarik behar	% 5,6	% 93,7	% 0,7	
Laguntza behar du	% 16,4	% 80,8	% 2,9	0,000

Areagotu egin dituzte adinekoen bakardade sentimenduak bai COVID-19ak, bai haren ondorioz pertsonen mugikortasunari eta biltzeko eskubideari ezarritako murrizketek. 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 12,7ren iritziz, COVID-19aren pandemiak areagotu egin dizkie bakardade sentimenduak; 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 13,1 da hori diotenen portzentajea. Adinari bai gehiago sexuari dago lotua areagotze hori. Izan ere, handiagoa da emakumeen artean bakardade sentimendua gizonen artean baino (% 15,0 eta % 9,8, hurrenez hurren).

Bakardade pribatua

Bakardadea neurtzeko zuzeneko galderak dituen mugak gainditzearen, De Jong Giervelden bakardade eskala laburra ere erabili dugu. Bakardadearen gaineko pertzepzio pribatuak zeharka aztertu ditugu eskala horren bidez, hau da, adinekoen erantzunik «behartu» gabe. Sare sozialei eta konfiantza sareei buruzko galderen bidez atzeman dugu adinekoen bakardadea.

Txosten honen egileak bakardadeaz garatutako definizioan oinarritzen dira galderak. Honela definitzen du bakardadea egileak: harreman sozialak kopuruz eta kalitatez nahi baino eskasagoak direla uste izatea. Hona bakardade horren elementu nagusia: «lotura intimorik ezaren sentsazioa, hutsik edo abandonaturik sentitzea».5 Eskala hori aplikatuta aztertzen dira bakardadearen adierazle diren harreman sozialen gaineko pertzepzioak eta balorazio pribatuak. Horrela ondorioztatu dugu, esate baterako, 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 24,7 bakarrik sentitzen dela; 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 26,6 da portzentajea. Bakardadea adierazten duten erantzun gehiago jasotzen dituzte eskalako item batzuek, adibidez, «konfiantza osoko jende asko dauka inguruan» eta «jendearen falta nabari du bere inguruan» diotenek (% 20tik gora, bien artean).

Bakardade adierazian bezala, kasu honetan ere ia berdina da gizonen eta emakumeen bakardade portzentajea (% 24,6 eta % 24,8, hurrenez hurren). Hau da, beraz, eskala horren arabera bakarrik sentitzen direnen profila: gizonak eta emakumeak, 80 urtetik gorakoak, bakarrik bizi direnak, ezkongabeak eta laguntza behar dutenak. Hauek dira bakardade mailarik handiena sentitzen dutenak: zaharrenak (80 urtetik gorakoak % 29,3), bakarrik bizi direnak (% 30,5) eta laguntza behar dutenak (% 35,1).

Bakardade pribatua, sexuaren eta adinaren arabera

	Bakardade pribatua			p
	Bai	Ez	ED/EDE	
Guztira, + 55	% 24,7	% 75,0	% 0,3	
Guztira, + 65	% 26,6	% 73,0	% 0,4	0,001
Sexua				
Gizona	% 24,6	% 75,1	% 0,3	
Emakumea	% 24,8	% 74,9	% 0,3	0,994
Adin tarteak				
55-64 urte	% 21,7	% 78,3	% 0,0	
65-79 urte	% 25,4	% 74,5	% 0,1	
80 edo gehiago	% 29,3	% 69,7	% 1,0	0,000
Sexua eta adin tarteak				
Gizonak, 55-64 urte	% 21,5	% 78,5	% 0,0	
Gizonak, 65-79 urte	% 24,4	% 75,3	% 0,3	
Gizonak, 80 urte eta gehiago	% 33,8	% 65,2	% 1,0	
Emakumeak, 55-64 urte	% 21,9	% 73,8	% 0,1	
Emakumeak, 65-79 urte	% 26,2	% 65,2	% 0,0	
Emakumeak, 80 urte eta gehiago	% 26,8	% 72,2	% 1,0	0,000
Familia mota				
Kide bakarrekoa	% 30,5	% 69,4	% 0,1	
Kide bat baino gehiagokoa	% 22,6	% 77,0	% 0,3	0,000
Egoera zibila				
Ezkonduak/elkarrekin bizi direnak	% 21,5	% 78,5	% 0,0	
Beste zenbait	% 29,4	% 70,0	% 0,7	0,000
Ingurunea				
Landa eremua	% 23,7	% 76,0	% 0,3	
Bitartekoa	% 25,1	% 74,9	% 0,0	
Hiritarra	% 25,4	% 74,3	% 0,3	0,733
Laguntza beharra				
Ez du laguntzarik behar	% 22,9	% 77,0	% 0,1	
Laguntza behar du	% 35,1	% 63,9	% 1,1	0,000

ALDIBEREKO BAKARDADEAK

Hona bakardadeen azterketaren azken proposamena: jakitea zer neurritaraino jasaten diren batera ikertutako bakardade motak, eta zer profil duten bilgune. Ikerketako datuen arabera, 55 urteko eta hortik gorako Euskadiko herritarren erdia baino gehiago (% 50,7) ez dira sartzen aztertutako hiru bakardade motetako batean ere; aitzitik, % 0,5ek etxeko bakardadea eta bakardade objektiboa eta subjektiboa jasaten ditu, hots, 4.049 lagun bakarrik bizi dira, ez dute inongo harreman sozialik ezta hilean behin ere, eta bakarrik sentitzen dira. Sexuaren arabera ez da aldaketarik nabaritzen hiru bakardadeak batera pairatzen dituztenen artean, baina bai adinaren arabera: areagotu egiten da bakardade sententzia zaharrenean, ezkongabeen, ingurune hiritarretan bizi direnen eta laguntza behar dutenen artean.

Etxeko bakardadearen eta bakardade subjektiboaren bategiteak ematen ditu portzentajerik handienak; beraz, batez ere bakarrik bizi direnen artean agertzen dira bakardade sentimenduak. Ezkontidearen heriotza eta autonomia galera izan ohi dira, maiz, bakardadearen eragile.

Bakardadeak, profil soziodemografikoaren arabera

	Bakardadeak						P	
	Bakardaderik ez	Etxeko bakardadea	Objektiboa	Subjektiboa	Etxekoa eta objektiboa	Etxekoa eta subjektiboa		Objetiboa eta subjektiboa
Guztira, + 55	% 57,0	% 17,4	% 0,8	% 16,6	% 0,1	% 7,3	% 0,4	% 0,5
Guztira, + 65	% 51,7	% 21,0	% 0,5	% 16,7	% 0,2	% 9,0	% 0,3	% 0,6
Sexua								
Gizona	% 63,0	% 11,6	% 0,7	% 18,3	% 0,1	% 5,7	% 0,2	% 0,4
Emakumea	% 52,1	% 22,1	% 0,8	% 15,1	% 0,2	% 8,6	% 0,5	% 0,5
Adin tartea								
55-64 urte	% 65,4	% 11,7	% 1,2	% 16,3	% 0,1	% 4,7	% 0,5	% 0,2
65-79 urte	% 56,3	% 17,5	% 0,7	% 17,0	% 0,1	% 7,6	% 0,2	% 0,6
80 edo gehiago	% 42,1	% 28,1	% 0,2	% 16,1	% 0,2	% 12,1	% 0,4	% 0,6
Sexua eta adin tartea								
Gizonak, 55-64 urte	% 67,7	% 9,4	% 1,3	% 15,9	% 0,1	% 4,7	% 0,6	% 0,2
Gizonak, 65-79 urte	% 63,7	% 11,5	% 0,4	% 18,9	% 0,0	% 5,1	% 0,5	% 0,4
Gizonak, 80+ urte	% 48,5	% 17,7	% 0,0	% 23,1	% 0,0	% 10,1	% 0,0	% 0,5
Emakumeak, 55-64 urte	% 63,2	% 13,8	% 1,1	% 16,6	% 0,0	% 4,6	% 0,5	% 0,2
Emakumeak, 65-79 urte	% 50,1	% 22,6	% 0,9	% 15,4	% 0,2	% 9,6	% 0,3	% 0,8
Emakumeak, 80+ urte	% 38,7	% 33,8	% 0,4	% 12,4	% 0,4	% 13,2	% 0,6	0,6%
Egoera zibila								
Ezkondutak/elkarrekin bizi direnak	% 77,2	% 0,2	% 1,1	% 21,0	% 0,0	% 0,1	% 0,3	% 0,1
Beste zenbait	% 28,4	% 41,6	% 0,4	% 10,4	% 0,3	% 17,6	% 0,5	% 0,9
Ingurunea								
Landa eremua	% 60,4	% 14,9	% 1,0	% 17,1	% 0,0	% 6,3	% 0,2	% 0,1
Bitartekoa	% 58,0	% 16,3	% 0,6	% 17,5	% 0,0	% 7,3	% 0,0	% 0,4
Hiritarra	% 54,0	% 19,7	% 0,7	% 15,8	% 0,3	% 8,2	% 0,6	% 0,8
Laguntza beharra								
Ez du laguntzarik behar	% 59,6	% 16,5	% 0,9	% 15,9	% 0,1	% 6,4	% 0,2	% 0,4
Laguntza behar du	% 42,4	% 22,1	% 0,5	% 20,5	% 0,0	% 12,9	% 1,1	% 0,6

Funtsezko Mezuak

Bikotekidearekin bizitzea da Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko herritarren **familia mota** ohikoena (% 37,5). Horren atzetik datoz belaunaldi anitzeko familiak (% 31,5), non belaunaldi desberdinetako jendea bizi baita (normalean, emantzipatu gabeko seme-alabak ere tarteko) eta pertsona bakarrekoak (% 25,6). Azken horietan, 80 urtetik gorako emakumeak dira nagusi —bakarrik bizi da 80 urtetik aurrerako ia bi emakumetik bat—; gizonak eta belaunaldi gazteetako jendeak, berriz, bikotea eta belaunaldi anitzeko familia dituzte gogokoen. Aurreko urteekiko bilakaerak, bestalde, hau erakusten digu: areagotu egin dela bakarrik bizi direnen familia kopurua, eta gutxitu semearen edo alabaren etxean bizi direnen belaunaldi anitzetako jendez osatuak. Hori dela eta, geroz eta gutxiago dira familia giroan bizi diren zaharrak, eta geroz eta gehiago independente bizi direnak.

Sare sozialekiko harremanari dagokionez:

- Adineko gehienek astero dute harremana beren seme-alabaren batekin. Hauek dira harremana egunero izaten dutenetatik gehienak: adinean aurrera egin duten emakumeak eta landa ingurunean bizi direnak. Gurasoekiko harremanari eusten dioten artean ere emakumeak dira nagusi, baina adin tarte gazteagokoak (55-64 urte). Halaber, emakumeak dira anai-arrebekiko harremanei gehiena eusten dietenak. Alabaina, emakumeak eta beste batzuekin bizi direnak dira senideak gehiagotan ikusi nahi lituzketenak.
- Familiaz kanpokoekiko harremanak ere ugariak dira adin tarte horietakoen artean. Hauek dira lagunekin eta auzoekin harremana maiz izaten dutenak: adinean aurrera egin dutenak (80 urtetik gora), emakumeak, eta landa inguruneetan zein bitartekoetan eta bakarrik bizi direnak.
- Azken urteotako bilakaerak adierazten duenez, berriz, areagotu egin da harremana, batez ere lagunekikoa.
- Bestalde, adineko ia denek izaten dute harreman ez-presentzialen bat astean behin. Adineko emakume gazteenen, bakarrik bizi direnen eta ingurune hiritarretako biztanleen artean da ohikoa harreman mota hori.
- COVID-19aren krisiaren eraginez gutxitu egin da harreman horien portzentajea 55 urteko eta hortik gorako herritarren artean (ia hamarretik hiru).

Seme-alabarik hurbilenekoak bizi diren **distantziari** dagokionez:

- Seme-alabekin bizi ez diren hamar herritarretik sei haiengandik bost kilometrotik beherako distantziara daude. Batez ere hauek dira profil horretako herritarrak: emakumeak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza behar dutenak eta ingurune hiritarretan zein bitartekoetan bizi direnak.
- 2010-2020 epean, behera egin zuen ondorengoekin bizi direnen kopuruak, baina areagotu egin zen etxetik kanpo hurbiltasuna, «urrutiko intimitatea» deritzona.

Bestalde, **komunitate sentimendu** handia dute 55 urteko eta hortik gorako herritarrek. Kasu horretan ere, batik bat hauek dira profil horretako biztanleak: emakumeak, adinean aurrera doazenak, bakarrik eta ingurune hiritarretan zein bitartekoetan bizi direnak.

Bakardadeei dagokienez:

- Bakarrik bizi da 55 urteko eta hortik gorako Euskadiko lau herritarretik bat (etxeko bakardadea) Adinean aurrera egin duten emakumeak dira horietatik ia erdiak.
- Herritarren % 9,7k bakardade objektiboa jasaten du (hilean behin ere ez da egoten senideren batekin). Batez ere hauek pairatzen dute isolamendu horren arriskua: ezkongabeek eta ingurune hiritarretan bizi direnek.
- 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 7,2k jasaten du bakardade subjektibo adierazia (harreman sozialik ezaren pertzepzioa). Esplizituki diote herritar horiek maiz sentitzen direla bakarrik. Profila: emakumeak, adinean aurrera doazen herritarrak, ingurune hiritarretan zein bitartekoetan bizi direnak eta EBJetarako laguntza behar dutenak.
- Bakardade subjektibo pribatuak, berriz, herritarren % 24,7ri eragiten die. Sare sozialei eta konfiantzako harremanen sareei buruzko galderen bidez atzeman dugu adinekoen bakardade mota hori. Profil nagusia: 80 urtetik gorakoak, bakarrik bizi direnak eta EBJetarako laguntza behar dutenak. Antza denez, generoa ez da aldagai erabakigarria bakardade mota horretan.
- Bakarrik bizi diren herritarren, hilean behin ere inongo harreman sozialik ez dutenen eta bakarrik sentitzen direnen % 0,5ek bakarrik pairatzen ditu aldi berean hiru bakardade mota horiek. Etxeko bakardadearen eta bakardade subjektiboaren konbinazioak izaten dira ohikoenak (% 7,3). Ia hamar lagunetik seik, berriz, ez dute pairatzen aldi berean inolako bakardade motarik.

